

## **2015EKO IRAILAREN 1EAN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSO BILKURAREN AKTA.-**

### **BERTARATUAK:**

#### **LEHENDAKARIA:**

Ibernalo Basterra Txasko and.

#### **ZINEGOTZIAK:**

Idoia Arenaza Sáenz del Burgo and.

Manuel Muñoz Morentin jn.

Zuriñe Sáenz Sáenz and.

Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jn.

Mikel Herrador Iriarte jn.

Juanjo García de Acilu Pérez jn.

María Asun Quintana Uriarte and.

Susana Sáenz de Ugarte Corres and.

**IDAZKARIA:** Miguel A. Oliveira Barral, ekitaldiaren fede ematen du.

Santikurutze Kanpezun, Kanpezuko Udal Ohoretsuaren Udaletxeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hamabosteko irailaren bata izanda, hemeretziak eta bost zirela, goian esandako Zinegotziak lehen deialdian elkartu ziren Udalbatzaren ohiko osoko bilkura egiteko Ibernalo Basterra Txasko Alkate-Lehendakari andrearen lehendakaritzapean, Idazkari-Kontuhartzailea bertan egonda.

Jarraian, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 46.2.C) artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma egiaztatzeari ekin diote, eta batzordea eratutzat jo da. Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

Akta hasi baino lehen, barkamena eskatu nahi da bilkuraren deialdiaren komunikazioa berandu egiteatik, harenak ez diren arazoengatik.

Era berean, adierazi nahi die publikoko pertsoneri zerrendako gai bakoitzaren ostean parte hartu ahal izango dutela, betiere eztabaida sortu gabe esandako momentu horretan.

### **1.- 2015EKO UZTAILAREN 7KO AKTEN ONESPENA**

Lehendakari andreak galdetu du Udalbatzaren kideren batek esatekorik duen 2015eko uztailaren 7ko ohiko eta aparteko bilkuraren aktei buruz. Horren kopia helarazi zitzaizen Zinegotzi jaun-andre guztiei, oraingo bilkurarako deiarekin batera.

Aurkeztutako aktak aho batez onartu egiten dira. Lehendakari andreak onartu direla adierazten du; eta haien transkripzioa Akten Liburura egitea agintzen du, R.O.F 110.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

### **2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK**

Zkia.	Data	Edukia
99-BIS	2015/07/07	ERABILERA KO LIZENTZIA EMATEA, FORJAKETA ALDATZEA, LOKALAREN EGOKITZEA
100	2015/07/08	OBREN LIZENTZIA EMATEA- ANTONANAKO AABB KONTZEJU-ETXEAREN KONPONKETA
101	2015/07/10	HERRERIA K. 30 ORBISO ETXEBITZITZARI ERABILERA KO LIZENTZIA EMATEA
102	2015/07/10	02/2015 KREDITU ERANSTeko ESPEDIENTEA ONARTZEA
103	2015/07/13	ENDESA JABETZA PUBLIKOAREN USTIAPEN BEREZIAGATIKO TASA

104	2015/07/13	SANTIKURUTZE KANPEZUKO AAB-ARI OBREN LIZENTZIA EMATEA ZOLATZEA ALDATZEKO
105	2015/07/13	ZORREN KONPENTSAZIOA
106	2015/07/15	GAINBALIOAREN KITAPENA ONARTZEA
107	2015/07/15	CAMINO DEL SOTO, 10 TEILATU-HODIA ALDATZEKO OBREN LIZENTZIA EMATEA
108	2015/07/15	SUBIDA DEL FRONTON, 24 ESTALKIAREN KONPONKETARAKO OBREN LIZENTZIA EMATEA
109	2015/07/16	SAMUEL PICAZA PLAZA, 6 BARRUALDEKO KONPONKETARAKO OBREN LIZENTZIA EMATEA
110	2015/07/16	BARRIO DE ARRIBA, 35 BARRUALDEKO KONPONKETARAKO OBREN LIZENTZIA EMATEA
111	2015/07/16	IKASTOLAKO JOLASTOKIA ESTALTZEKO XEHETASUN-AZTERKETAREN HASIERA ONARTZEA
112	2015/17/16	FORU PLANA DIRU-LAGUNTZEN KONKURRENTZIA
113	2015/07/20	SAMUEL PICAZA PLAZA,6 IRISGARRITASUNA HOBETZEKO OBREN LIZENTZIA EMATEA
114	2015/07/21	ALKATEA ORDEZKATZEA
115	2015/07/21	IDAZKARIA ORDEZKATZEA
116	2015/07/21	GAINBALIOEN KITAPENAREN ONESPENA
117	2015/07/21	ARABA CAMPER PROIEKTUAREN ADJUDIKATZEA
118	2015/07/21	INFORMAZIO-PANELEN MATERIALA ESKURATZEA
119	2015/07/23	YOAR, 8 HARRRESIA KONPENTZEKO OBREN LIZENTZIA EMATEA
120	2015/07/23	EUSKO JAURLARITZAKO DIRU-LAGUNTZEN KONKURRENTZIA
121	2015/07/24	LANGILEAREN HIRURTEKOA ONARTZEA
122	2015/07/28	BANKU-TRANSFERENTZIA
123	2015/08/03	1 POLIGONOA 877 LURZATIA IXTEKO OBREN LIZENTZIA EMATEA
124	2015/08/03	IMPERIAL, 11 FATXADA KONPONTZEKO OBREN LIZENTZIA EMATEA
125	2015/08/03	SANTIKURUTZEKO 1 POLIGONO 1034 LURZATIAN OBRAK GELDITZEKO AGINDUA
126	2015/08/17	ARABA CAMPER – OSASUN- ETA SEGURTASUN-PLANAREN ONARTZEA
127	2015/08/21	GAINBALIOEN KITAPENAREN ONESPENA
128	2015/08/28	ORBISOKO AAB-RI OBREN LIZENTZIA EMATEA HUA EGITEKO
129	2015/08/28	JOLASTOKIA ESTALTZEKO J. ECON. CENTROS ESCOLARES-I OBREN LIZENTZIA EMATEA
130	2015/08/31	2015EKO IRAILAREN 1ERAKO OSOKO BILKURA DEIALDIA

### **3.- ORBISOKO ADMINISTRAZIO BATZARRAREN TRUKATZEAREN ADMINISTRAZIO-ESPEDIENTEAREN BERRESPENA, EGOKIA BADA. ZIOEN AZALPENA:**

Ikusirik Orbisoko Administrazio Batzarrak bi jabetzen artean trukaketa egiteko aurkeztu duen espedientea; batetik, Kanpezuko udalerriko 4 Poligono 85 Lurzatia Orbisoko Administrazio Batzarraren jabetza, eta bestetik, Kanpezuko udalerriko 4 Poligono 258 lursailaren 1.042,50 m2koa María Nieves MARTÍNEZ DE ANTOÑANA MARTÍNEZ DE LAHIDALGaren jabetza. Bi aldeetako inork ezin izango du erreklamatu inolako kalte-ordainik.

Ikusirik espedientearen beharreko izapideak jarraitu direla.

Ikusirik Toki Araubidearen Oinarrietako 7/85 Legearen 45.2.c) artikuluan adierazita ondasun esleitzeko eskumenak Udalak berretsi behar dituela.

#### **XEDAPENAK:**

**AKORDIOA:** Aurrean adierazita kontuan hartuta, bertaratuek aho batez onartu dute:

**LEHENA.-** Kanpezuko Udalak berresten du Orbisoko Administrazio Batzarrak bi jabetzen artean trukaketa egiteko aurkeztu duen espedientea; batetik, Kanpezuko udalerriko 4 Poligono 85 Lurzatia Orbisoko Administrazio Batzarraren jabetza, eta bestetik, Kanpezuko udalerriko 4 Poligono 258 lursailaren 1.042,50 m2koa María Nieves MARTÍNEZ DE ANTOÑANA MARTÍNEZ DE LAHIDALGaren jabetza. Bi aldeetako inork ezin izango du erreklamatu inolako kalte-ordainik.

**BIGARRENA.-** Esandako akordioa Orbisoko Administrazio Batzarrari jakinaraztea, espedientearen izapideekin jarrai dezan, eta dagokion baimena eska dezan Arabako Foru Aldundiari

### **4- BERRESTEA, HALA BADAGOKIO, FORU PLANEKO DIRU-LAGUNTZETAN PARTE HARTZEKO DEKRETUA. ZIOEN AZALPENA**

Ikusirik 2015eko maiatzaren 26ean, ALHAOn argitaraturako.

Ikusirik "Kirol ekipamenduaren zonaldean urbanizazioaren hobekuntza" izeneko eta 239.341,61€ko balioa duen Kanpezuko Udalak egindako proiektua, Alkatetzaren Dekretuz onartu zena uztailaren 16an, 112 zenbakia.

Ikusirik Udaltzaren eskumena dela, 7/85 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21 eta 22 artikuluetan zehaztutakoaren arabera.

### **XEDAPENAK**

**AKORDIOA:** Bertaratutakoek aho batez onartzen dute:

**LEHENA.-** 2016-2017 aldirako Obra eta Zerbitzuetako Foru Planaren bitartez laguntzak emateko deialdian Kanpezuko Udalak aurkeztutako eskaera berrestea, honako proiektu honekin: "Kirol ekipamenduaren zonaldean urbanizazioaren hobekuntza", 239.341,61€ko baliokoa

**BIGARRENA.-** Laguntzaren izapidearen prozedurari jarraituz, akordioa A.F.A.ri igortzea.

### **5- BEHIN BETIKO ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, IKASTOLAKO JOLASTOKIA ESTALTZEKO XEHETASUN-AZTERKETA**

#### **ZIOEN AZALPENA:**

Alkatetzaren ebazpenez, 2015eko uztailaren 16an behin-behinean onartu zen Santikurutze Kanpezuko Arrabal kalea, 99, Ibernaloko Andra Mari Ikastolaren eraikina dagoen 1 poligonoa 960 lurzatian elementu eta eraikin irekiak jartzeko baldintzen definizioari eragiten duen Xehetasun-Azterketa.

Xehetasun-Azterketa informazio publikoan jarri zen hogeit hamar eguneko epean, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialeko 88 zenbakian 2015eko uztailaren 27an argitaratuko iragarkiaren bitartez; eta, egun berean Diario de Noticias de Alavan agertutako iragarkiaren bitartez.

Informazio publikoaren epean ez dira alegazioak aurkeztu.

2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 98.3 artikuluetan eta apirilaren 2ko 7/85 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.2.c) artikuluetan zehaztutakoaren arabera, Udaltzarak aho batez hurrengo **AKORDIOA** onartu du:

**LEHENA:** Behin betiko onartzea Santikurutze Kanpezuko Arrabal kalea, 99, Ibernaloko Andra Mari Ikastolaren eraikina dagoen 1 poligonoa 960 lurzatian elementu eta eraikin irekiak jartzeko baldintzen definizioari eragiten duen Xehetasun-Azterketaren Proiektua.

**BIGARRENA:** Behin betiko onarpenaren Akordioa Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**HIRUGARRENA:** Jabeei eta zuzenki eragindako gainerako interesatuei oraingo akordiaren berri eman; eta, halaber, Hirigintza arloko Foru-Organoko eskudunari jakinaraztea.

**LAUGARRENA:** Alkateari esku ematea beharrezko dokumentuak sinatzeko oraingo Akordioa lortzeko.

### **EZTABAIDA - PARTE-HARTZEA**

Garcia de Acilu jaunak egikaritze-epeaz galdetu du.

Muñoz jaunak adierazi du lana Araba Obra enpresari esleitu ziotela aurreko ostegunean, eta abuztuaren 31ean 3 hilabeteko egikaritze-epea duten lanak hasi zirela.

### **6.- LEHENDAKARITZAREN TXOSTENA**

Alkateak aurreko bileratik egindako kudeaketak adierazi ditu:

-Uztailaren 16an, HAPOri buruzko (hiri antolamenduko plan orokorra) bilera irekia egin zen, eta irailean eskatutako dokumentazioa bidaliko da.

-Futbol zelaiari buruz, kudeaketak jarraitu dira hainbat erakundeekin: Eusko Jaurlaritza, AFA, RFEF eta Arabako Futbol Federazioa. Ondorioen komunikazioaren zain daude, bigarrenak direlako, Araia eta gero. Prozedura ez da arautua -bestelako dirulaguntzetan bezala-, eta proiektu bakoitzean beharren arabera da, baita eman daitekeen kopuruaren arabera.

-Herrador jaunak adierazi du kinielen diru-sarreraren arabera dela.

-Muñoz jaunak adierazi du prozedura ez dagoela araututa.

-Abuztuaren 27an, Osakidetzarekin bilera egin zen kontsultategiaren proiektuaz mintzatzeko; 2016aren amaieran obra erabat gauzatu egotea aurreikusten da.

-Ruiz de Loizaga jaunak, Hirigintza zinegotzi bezala, edukiontzien gaiari buruz adierazi du Ingurune Sailak azaldu dtela errepideen baimenaren zain daudela. Ostera, baimenak azkartzeko hitz egin da. Halaber, AFAn antolatu behar du hesia eta inguruaren lehiaketa; hortaz, atzeratu daiteke zerbait.

Garcia de Acilu jaunak azaldu du aurreko Udaltzarrean aipatu zela guztia eginda zegoela. Gogoratzen du, baita, beste nonbait ere berri hori irakurri egin duela.

Ruiz de Loizaga jaunak erantzun du gestioak egin zirela, azken erabakia berea ez dela, ordea.

Muñoz jaunak, Ogasun eta Enplegu zinegotzi bezala, ikastolan abian jarritako obrak aipatu ditu.

García de Acilu jaunak galdetu du zenbat gerakina dagoen azkenean.

Muñoz jaunak esan du hutsean geratzen dela.

Garcia de Acilu jaunak adierazi du hori oso arriskutsua iruditzen zaiola, eta kuota igo beharko dela.

Muñoz jaunak esan du sei mila euro geratuko direla azkenean, eta ondoren aztertuko dela.

Une horretan gaiaren inguruko eztabaida sortzen da.

Muñoz jaunak Araba Camper proiektua ere aipatu du; lanak gauzatzen eta epeak betetzen ari dira. Irailaren erdialdean haren funtzionamendua arautuko duen lantalde bat osatzeko asmoa dute.

Quintana andreak adierazi du haiek deituta izan ez diren hainbat bilera egin direla, esaterako: Osakidetzakoa, administrazio batzarrekin egindakoa, azokakoa, erretirakuekin egindakoa, e.a. Horregatik badagoela ezinegona haren udal taldean.

Muñoz jaunak esan du gobernatu ahal izateko egoera nolakoa den jakin behar dela, eta horixe ari direla egiten. Hasierako lantaldeak direla lanean hasi baino lehen; batera egin nahi dutela.

Quintana eta Saenz de Ugarte andreak bilera horietara deituak ez izatearen hutsunea sumatzen dute. Izan ere, deitu dieten guztietan egoteko ahaleginak egin dituzte. Baztertuak izatearen sentipena dute, ordea.

Muñoz jaunak adierazi du bereizi behar ditzutela sententziak antzemateko hasierako harremanak eta ondorengo lan ildoak.

Herrador jaunak azaldu du lantalde irekiak daudenean baizik ez dietela deitzen, beste ezertarako ez.

Saenz andreak, Kultura zinegotzi bezala, azoka antolatzeko hasierako bilera aipatu du; haren premiagatik bestelako kideei ez zieten abisua eman.

Jaibus ere aipatu du, guztira 3 autobus izan dira.

Herrador jaunak aipatu du prezioa gehiegizkoa zela esan diotela.

Garcia de Acilu jaunak galdetu du zein den gutxieneko adina.

Quintana andreak adierazi du ez dagoela halako adinik, kontsultatu egin baitu.

Saenz andreak esan du iradokizun guztiak jaso egiten direla, eta gai hori, oro har, beraztertu daitekeela.

Era berean, adierazi du bilera irekiak antolatu direla ludotekaz, pilotalekuaz eta polikiroldegiaz beharrak biltzeko.

Herrador jaunak rokodromoz galdetu du.

Saenz andreak adierazi du biomasaren obra bukatu arte itxaroten ari direla.

Herrador jaunak azaldu du Udalarena den Subida al Castillo etxabea erabili daitekeela, gastu txikiarekin.

Ruiz de Loizaga azaldu du aukera hori aztertu beharko dela; gehitu du hitz egin dela instalazioen erabilera arauak beharko direla, baita elkarte osatzea ere.

Herrador jaunak galdetu du pertsona gehiago kontratatzeko aurreikuspenaz.

Muñoz jaunak adierazi du segituan bi gehiago, Lanbidek diru-laguntzak emateko jartzen dituen baldintzen arabera.

Herrador jaunak azaldu du igerilekuetan jendeak itzal zabalagoa eskatzen duela, eta arazoa hamakak direla.

Alkate andreak esan du aurreikusita zegoela.

Herrador jaunak esan du atzo urak hartu zuela polikiroldegia.

Ruiz de Loizaga aipatu du halako egoerak ez errepikatzeko foru planean diru-laguntza eskatu dela.

## **7.- MOZIOAK**

Kaixo udal-taldeak aurkezten duen mozioa irakurtzen da.

### **LOMCErik GABEKO HERRIA**

Hezkuntza eskubide unibertsala da, pertsona ororen eskubidea alegia.

Eskubidea unibertsala den heinean, administrazioarena da eskubidea bera bermatzearen ardura; eskubidea bermatzen dela ziurtatzea gizarte zibilaren ardura den moduan.

Eskubidea izateko, hezkuntzak ikasle guztion garapen osoa bermatuko duen heziketa behar du izan. Parte hartzailea, askatzailea, hezkidetzaila, inklusiboa, demokratikoa, anitza, integratzailea...

Azkenengo urteetan ordea, oso bestelakoa izaten ari da hartutako norabidea eta LOMCE hezkuntza erreformak bide antzu hau jorratu besterik ez du egingo.

LOMCEk oinarrizko hezkuntza eskubideari erasotzen dio eta horregatik bere kontra agertu da Euskal Hezkuntza Komunitatea, eskola inklusiboa bazterten duelako, autoritarioa delako, segregatzailea delako, euskara eta euskal kultura heriotzara kondenatzen dituelako, familien eta herritarren parte hartzearen kontra doalako, erlijioa inposatzen duelako, ikasleen berezitasunen errealitatek urrun dagoen hezkuntza inposatu nahi duelako, sistema merkantilista baten beharrei erantzun nahi diolako eta abar eta abar

LOMCE hezkuntza eskubidearen kontrako eraso argia da, hezkuntzaren oinarrizko printzipioen kontra doalako eta gizartearen nahiaren kontra inposatu nahi delako. Hezkuntza, eskubidea izateari erasotzen diona alegia. Eta eraso administrazioaren aldetik etorrita (eskubide bermatzaile paperari uko eginda); guztion ardura da eskubidearen defentsa. Horregatik Euskal Herriko herri ezberdinetako plataforma eta talde ezberdinek bat egin dugu eta LOMCErik GABEKO HERRIA dinamika abiatu dugu.

LOMCErik GABEKO HERRIA dinamika hezkuntza komunitateko eta norbanakoen konpromisoei esker aurrera eraman nahi da. Gure gelak eta eskola LOMCErik gabeko guneak izateko, hezkuntza komunitateko kideek horrela adostuta.

Bestetik LOMCErik GABEKO HERRIA dinamikaren bidez, Euskal Herria Hezkuntza Sistema Propioa eraikuntzan kokatzen dugu, hezkuntza eragileen gehiengoaren eskaerei jarraituz.

Aurreko guztia dela eta, Mendialdealpi Gurasoen Elkarte- Mige eta Lomce Kontrako Mendialdeko plataforma Udaltzari mozio hau aurkezten dio, eztabaidatu eta onartu dezan:

1) Udal hau, LOMCE hezkuntza erreformarekin erabat aurka agertzen da, hezkuntza eskubidearen kontrako eraso argia delako.

2) Udal honek gure Hezkuntza propioa garatzeko bidean, indar aktiboa izateko eskura dituen neurri guztiak aktibatzeke konpromisoa hartzen du, hurrengo lehentasun baitan:

- Ikasleen garapen, behar eta eskubideak bermatuko dituen heziketa integrala (pertsonalizatua, inklusiboa, hezkidetzaila, kritikoa, laikoa...) eta horretarako behar diren baliabide guztiak izango dituen.

- Ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituen.

- Curriculum propioa izango duena.

- Heziguneen autonomia eta parte hartze eta funtzionamendu demokratikoa bermatuko duena.

- Euskal Herrirako hezkuntza marko normatibo propioaren alde egingo duena.

3) Udal honek ikastetxeetan LOMCEren ez aplikazioan indar aktiboa izateko eskura dituen neurri guztiak aktibatzeke konpromisoa hartzen du, hurrengo lehentasunen baitan:

- Ikastetxearen gestioa, eskola komunitate osoaren ardura izango da, funtzionamendu eta kudeaketa demokratikoa ziurtatzeko.

- Euskara ardatza izango da hezkuntzan, ikasle euskaldun eleanitzak hezteko

- Ikaslea hezkuntza prozesuan eskubidedun subjektu aktibo nagusi gisa aitortuko da.

- Aukera berdintasuna bermatzeko, ikasleen arteko sailkatzea eta mailakatzea saihestea, baita ibilbide orokorretik ateratzea emaitza akademiko jakin bat lortzen ez duten ikasleak (Oinarrizko Lanbide Heziketa)

- LOMCEk ezartzen duen ebaluazioen gainetik, irakasleen ebaluazio jarraituari garrantzia aitortzea, dagozkion xedeetarako.

- LOMCEk ezartzen dituen ebaluazioen emaitzak publiko egin nahi izatea salatzeke eta ekiditeko.

- Irakasleen lan-tresna gisa curriculum propioa izatea ahalbidetzeko.

4) Udal honek, maila pertsonalean hasi eta kolektiboan garatuak izan beharko diren LOMCEren kontrako konpromisoak bere egiten ditu eta LOMCERIK GABEKO HERRIA DINAMIKARI bere babes osoa ematen dio eta Kanpezu-Campezo LOMCERik gabeko Herria izendatzeko proposamena onartzen du eta ondoren bertako herritarrei eta udalerriko eskolari jakinaraziko die, 2015-16 ikasturte hasieran.

Bozketara jarri da, eta Basterra, Muñoz, Saéñz, Ruiz de Loizaga, Herrador, Quintana eta Saenz de Ugarte zinegotzi jaun-andreen aldeko 7 botoekin onartu da. Garcia de Acilu zinegotzi jauna abstenitu egin da.

Azken honek esaten du haren abstenzioaren arrazoia dela aurreko legegintzaldian antzeko mozioa aztertu izana.

## **8.- ESKARIAK ETA GALDERAK**

Alkate andreak galdetu die udal-taldeen bozeramaileei mintzagairen bat azaldu nahi duten.

Garcia de Acilu jaunak galdetu du bilkuraren deialdiaren komunikazioa berandu egitea zeri egotzi zaion, harenak ez diren arazoengatik esan da eta.

Alkate andreak azaldu du ikastolaren jolastokia estaltzeko xehetasun-azterketaren onarpena gai-zerrendan sartzeko premia izan dela kausa.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko arratsaldeko zortzietan. Nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.